

NAZIOARTEKO ADITUEK KLIMA-ALDAKETAREN JATORRIA, ERAGINA ETA KONPONBIDEARI BURUZKO ALDERIK KRITIKOENAK AZTERTUKO DITUZTE DONOSTIAN UZTAILAREN 8TIK 10ERA

Donostia, 2013ko Uztailak 8

EHU/UPVk eta BC3k elkarren artean antolatzen duten udako eskolak diziplina desberdinetako nazioarteko 16 aditu bilduko ditu, klima-aldaketaren zientzia (uztailak 8), eraginak (uztailak 9) eta gaur egun dauden hautabide teknologiko, ekonomiko eta politikoak (uztailak 10) aztertzeke asmoz.

Anil Markandya (BC3ko Zuzendari Zientifikoa) eta **Mikel Gonzalez-Eguino** (BC3ko eta EHU/UPVko ikertzailea) dira EHU/UPVren Udako Ikastaroen barruan antolatutako topaketa honen zuzendariak. Aurten, laugarren edizioa egingo da, "Addressing climate change challenges from a multidisciplinary perspective" izenburupean.

Hauek dira ikastaroaren testuinguruaren ardatzak:

- Komunitate zientifikoak jakinarazi duenez, atmosferan 2 gradu zentigradoko segurtasun-muga erlatiboa bermatzen digun 400 ppm CO₂ko muga gainditu berri dugu, eta 450 ppm-rantz hurbiltzen ari gara azkar-azkar.
- BC3 ikerketa-zentroak klima-aldaketari buruzko Europako eragin handieneko Think Tank-aren saria jaso berri du bere argitalpen zientifikoengatik eta Europako Batzordearen proiektuetan izandako partehartzeagatik.

Ikastaroan parte hartuko duten 16 hizlariak maila gorenekoak dira. Nabarmentzeko modukoak dira **Nazio Batuetako IPCCan aditu gisa diharduten Alex Cearreta** (uztailak 8), itsas-mailean aurreikusitako igoerei buruz mintzatuko dena, **Anil Markandya** (uztailak 9), klima-aldaketara egokitzeko neurriez hitz egingo duena, eta **Xavier Labandeira** (uztailak 10), egoerari buelta emateko behar diren neurri ekonomiko eta fiskalak aztertuko dituena. Horiekin batera, beste hauek ere parte hartuko dute: **Pedro Linares** (uztailak 10), oinarri-oinarrizkoa bilakatu den energia sektoreari buruz solastatzeko, eta **Arild Underdal** (uztailak 10), diplomaziak eta nazioarteko akordioek duten zereginaz mintzatuko dena, Science aldizkarian gai honi buruz plazaratu berri duen artikulua haritik.

Ikastaroan 65 ikasle parte hartuko dute, eta gehienak doktoregoko ikasleak, ikertzaileak eta gai horri buruzko adituak dira. Ikastaroa ingelesez egingo da, ikasleen erdiak atzeritarrak/europarrak direlako. Horrez gain, parte hartuko duten doktorego-ikasleen 15 ikerketa-lanak aurkezteko aukera ere izango da, poster-saio baten bitartez. "**Donostia United Nations Climate Summit**" delakoaren antolaketa ere (uztailak 9) nabarmendu behar da, parte hartzaileei klimari buruzko biltzar simulatu batean herrialde bana ordezkatzeko aukera emango diena (Joko Teoriaz baliatuta).